



GUREA OTE OARSO?

Loidi'tar J. A.

«... y los recientes descubrimientos cerca de la iglesia de Ntra. Sra. del Juncal, de Irún, donde se han sacado a luz más de tres mil trozos de cerámica, demuestran, sin lugar a dudas, que ése era, precisamente, el emplamiento de la antigua «OARSO» romana...»
 (De la prensa diaria)

Eta... guk, errenderiarrak, zer?

Dirudienez, erromatarrak alderdi oetan arro xamar ibilli ziran garai aietan, azaldu zan *idatzita* lenengo aldiz, emengo erri baten izena. Estrabon^{ek} gerkeraz, bere «Geographika»ⁿ. Jesukristo baiño gizaldi bat lenago, aitatu zuen «OIASOONA» edo «OIDASOUNA» (metatesi bidez askok «IDASUNA» diotena); Pomponio Mela^k, Jesukristoren gizaldian, latineraz, bere «De situ orbis»^{en} aitatzen duen «OEASON»; Plinio gazteak (61-113 u.), bere «Naturalis historia»ⁿ aitatzen duen «OLARSO»; Ptolomeo^k, bigarren gizaldian, bere «Geographike Hyphegesis»^{en}, aitatzen duen «OIASSO»; eta gero, Molecio^{ren} «EASO», Marciano Capela^{ren} «IARSON», eta beste ainbesteren

«OIAZU», «OYARZO», «OJARZO», «OLEARSO», «OEA-SO», «OYASO», «OIASO», «OYASONA», «OIAZSO», ainbeste eratara aldatutako gure zorioneko «OARSO» dalakoa.

Izan ere, argi asko aitortu zuen Pomponio Mela^k, gure berri, euskaldunen berri alegia, ari zala, *«...aliquot populi amnesque sunt sed quorum nomina nostro ore coincipi nequeant...»* (Chorographia III, 12). Bere izkuntzan, latineraz alegia, adierazi edo idlatzi ezin zitezkean izenak zituztela emengo erri ta ibaiak...

Baiña, «nun» zegoen «OARSO» dalako erri au?

Zazpi erri izan dira (oraingoz) bereganatu naian jardun diranak. Oiatzuarrek oraingo Oiatzun bera dala diote, irundarrak berriz Irun, ondarribiarrak Ondarribi, donostia-

rrak Donostia, pasaitarrak Pasai, eta, esate baterako, oriotar berak orrenbestera ausartzen ez badira ere, Paris'eko gotzai-buru izan zan Marca'k, Orio. Baiña guk, errederiar-rrak ere, badegu zer-ikusirik gai ontan. Sugurra sartu genuen beintzat; Gamon'ek eta... Eta ortan jarraitzen degula ikusteko, ez dezu eskuetan daukazun «OARSO» onen azalari begiratu besterik...

Nor dago ziurrean?... Nor egia jabe?... Egia, «barrak» al da?... Askok esango lukena; auskalo...!

Egia esan, ez dago oraindik, gutxiagorik ere, zearo argitua «nun» zegoen, erromatarren «OARSO» dalako erri ori. Dakiguna, erromatar berak esandakoa ziurtzat jotzen badegu, auxe da: «*vasconum*» lurretan zegoela «*Oiasoo polis*» dalako erria. «*Oiasso ákron Pyrénées*», itsasoan muturra sartzan zuten «*Oeaso promontorium*», menditxo baten ego aldean zegoela. Ibai baten ertzean, eta Estrabon'ek dionez «itsaso gañean», edo, Ptolomeo'k dionez, pixka bat barruago.

«Itsaso gañean» egote ori, ez da itzez-itzez artzeko esatera. «Oarso» ori ez zan «palafito» bat, ez zan aintzira-erri. Bazuten orduko oarsotarrak, naiko lur-idor beren etxeak jasotzeko, gure itsasoaren aserrearen eta gure ibaien ugoldeen aurka jardun bearrik izan gabe. Estrabon berak, eta esatera berean, ain zuzen ere, Tarragona'tik Oiasoona'ra erabiltzen zuten bidea adierazten ari dala, «*Ouaskoonas*», euskaldunak alegia, «Itsaso gañean» bizi zirala dio. Besterekiko ari da ortan, jakiña. Gasteiz'eko batentzat, esate baterako, Aizgorri'ko muturrean egotea «itsaso gañean» egotea litzake...

Beste aldetik, aitatzen duten ibai orri, Mela'k «MAGRADA» deitzen dio, eta, dionez, bere «OEASON»'en sortaldean dago. Ptolomeo'k berriz «MENLASKO» deitzen dio, ta au, ibai au, bere «OIASSO»'ren sartaldean dagoela dirudi.

Ibai ber-beraren bi izen al ziran bi izen oek? (Onela uste izan zuten, errez-bide gizan, Henao, Moret, Oihenart eta beste askok, eta era berean uste dute orain ere batek baiño geiagok). Eta, onela izatekotan, zer ibai zan au; gaurko Bidasoa?... Gaurko Oiartzun?... Ala, bi ibai ote ziran?: Bidasoa eta Oiartzun?... Oiartzun eta Urumea?... Urumea eta Oria?... Danetarako daude iritziak.

Ptolomeo'k neurri oek ematen zizkigun:	
Ibaiko sarrera.....	15º sarkaldera
Erria.....	15º ta 6' sarkaldera
	45º ta 6' ipar-aldera
Menditxoa.....	15º sarkaldera
	45º ta 60' ipar-aldera

Jakiña da neurri oek ez dirala itzez-itzez artu bear. Ptolomeo'ren emengo neurriak ez dirala oso zuzenak. Ez aztu gaiñera, Greenwich ez zala oraindik jacio. Alejandria'tik ari zala bera...

Dana dala, ona emen batzuen eta besteen alde ta aurkako argibideak:

1) Oiartzuarrak diote, «OARSO» izen ber-berak alegia, Oiartzun adierazten duela. Ptolomeo'ren «OIASSO» izenak, baduela datibu ta genitibu dan «OIASSON» dalako bat, Oiartzun'en bukaerakin antza geiago duena. Berdintsu esan genezakeala Mela'ren «OEASON»'i buruz. Eta era berean berdindu genezakeala Estrabon'en «OIDASOUNA» gaurko Oiartzuna'rekin. Bere lurretan, Andrearriaga'ko

arria ta erromatarren txintxin batzuek billatu izan dirala. Ptolomeo'k dion «Menlasco» ibaia «dudarik gabe» gaurko Oiartzun ibaia dala, eta gaurko Oiartzun erria, Ptolomeo berak «ederki asko» zion bezela ibai onen sortaldean dagoela. Itsasoko ura leen Ugaldetxe'raño iristen zala... baiña, ala ere, Oiartzun itsasotik urruti xamar Estrabon'ek dionez, eta...

2) Ondarribiarrak berriz, Estrabon'ek «OIDASOUNA»'tzaz «ederki asko» zion bezela, gaurko Ondarribi ere, itsaso gañean dagoela. «Magrada» eta «Menlasco», aipatutako bi izen oiek, ibai ber-beraren bi izen zirala, ta au, «dudarik gabe», oraingo Bidasoa dala. Menditxoa berriz, jakiña!, Jaizkibel dala, ta itsasoan sartzan dan muturra Higer. Gaurko Ondarribi, erromatarren «OARSO» dalakoa bezela, menditxo orren ego aldean dagoela, Mela'k «ederki asko» dion bezela, ibaia («Magrada» alegia) sortaldetik duela. Eta au guzia naikoa ez ba'litz, Madina'k dion bezela, «Arsu» Ondarribiko baserriak «oarsu»'rekin zer-ikusirik baduela. Erromatarren zer edo zer ere arkitu izan dala noizbait... Baiña, erria ez dago ibaitik sei minutura, ta... Ptolomeo'k ere esan zuten zerbait eta...

3) Orio'ren alde, Paris'eko gotzai-buru izan zan Marca dalakoa, atera zan alajaña. Onen ustez, erromatarren aitatzen zuten ibaia, «Menlasco» ibaia alegia, oraingo «Oria» da, eta itsasoan muturra sartzan zuten menditxoa «Mendizorrotz» ain xuxen ere... Baiña, erria ez dago ibaitik sei minutura. Orio'ko neurriak ez datoz bat Ptolomeo'k emandakoein. Ez dago «vasconum» lurretan «varduli»'enetan baizik. Ez da erromatarren txintik ere azaldu, eta...

4) Donostiarrentzat, Estrabon'ek zion bezela, Donostia «itsaso gañean» dago. «EASO» izena berak ere ba du zer-ikusirik (Dirudienez, Molecio'k, Ptolomeo'ren «OEASO»'ren «0» ori grekuen artikulutzat artuaz «O Easo» idaztetik). Ibaia, Mela'ren «Magrada» alegia, oraingo Urumea berbera «dudarik gabe» bere sortaldean dagoela, ta... Baiña, ez ditu Ptolomeo'k emandako neurriak. Ibaia ber-bertan dauka, ta... Ez du itsasoan muturra sartzan duen mendirik, eta... «*La bella Easo, que tiene mucho de bella y nada de Easo*», dala ta...

5) Irundarren ustez, Mela'k «ederki asko» zion bezela, Magrada ibaia sortaldetik dauka. Ibai au, oraingo Bidasoa da «dudarik gabe». Estrabon'ek «IDASUNA» edo, aitatzen du. Eta badirudi izen onek «Irun-Urantzu»'rekin alkarkizunen bat izatea... Gaiñera, bere lurretan, 1790garren urtean, Beraun'en ain xuxen ere, erromatarren garrantzi aundiko arri, ta Faustina ta Adriano'ren txintxiñak arkitu ziran. «Irun» izenak berak ere, askorentzat (ez danentzat!), «iri» = «erri», erri bat adierazten digu. Eta, batez ere, BATEZ ERE, orain, urte oetan, eliz nagusi ondoan, erromatarren arri bikañak eta iru millatik gora ontzi-puska arkitu dira. Iru millatik gora!... Baiña... ibaia bertan dauka, ta... Ptolomeo'k eta... Estrabon'ek eta...

6) Pasaitarrak diote, Pasai «Oiartzun'go kaia» bezela izendatua izan dala bein baiño geiagotan. Erromatarren bi txanpon ere arkitu dirala... Bat eta bat, bi. Gaiñera, Pasai... baiña, zertarako jarrai?

7) Guk, errederiarrak berriz, esan esaten degu, sendo esan gero!, Estrabon'ek «OIDASOUNA»'tzaz zion bezela, Errederi, denbora artan, gure aitona berak ere ikusi zuten bezela, itsaso ondoan zegoela. Ibaia, Mela'k dion «Magrada» alegia (guk ere badegu aukeratzeko eskubidea!),

gaurko «Oiartzun» ibaia «dudarik gabe», bere sortaldean daukala. Gaurko «Oiartzun» ibai oni ere, batzuek diotenez, «Lezo»-ko ibaia» deitzen ziotela, edo obeto esan, «Lezon». Eta «Menlasco» dalako izen ori, etorri zitezkeala («Men-lascus») «Lezon»-etik. Aia-arriko mea-zuloetatik zekarten arriarentzat, emen, Errenderi inguruan, zegoela kaia... Baiña, ibaia ez dago erritik sei minutura ta... Ez da erromatarren ezer arkitu, ta... Tira! Tira!...

Naspilla onen ondoren, zer esan diteke? Badirudi, askok dioten bezela, denbora aietan, asi Urumea'tik eta Bidasoa'raño gutxienez, dana «OARSO» zala. Mugak ez zeuden orduan orain bezela erabakiak eta tinkatuak (bearrik ere!). Plinio'k zion bezela «*vasconum saltus*» dalakoaren ondoan zegoen «OARSO». Ta «saltus» latineraz eta «oiar-tsu» euskeraz, gauza bera da: «toki basotsua».

Esan dezagun bada «toki basotsu» ontan, or edo an, «nunbait» (gaurko Oiartzun'en agian?) zegoela «Oiasso polis» dalakoa. Eta Irun/Ondarribi batetik, eta Errenderi/Pasai bestetik, izan zitezkeala bere bi kiaiak, eta bi kai oen

ondoan sortu zitezkeala bi «oarso» txiki. Ez al da ba itxurazkoa Aiarri'ko bi aldetatik, Thalacker'ek zionez 200 urteren buruan 600 gizonen meazuloetatik atera zuten arri pilloak bi aldetara eramatea, batetik bestera, aldapa gora ibilli bearrik izan gabe?

Dana dala, inoren «usteak» baiño geiago balio izaten dute beti «izateak»: arkitzen diran gauzak alegia, eta, oraingoz, greko-erromatarrek idatzi zutena (eta aiek ere gezurrak esaten jakingo zuten noski!), eta emen arkitu diran erromatarren «kondarrak» erakusten digutena besterik, ez degu. Eta bide ontan, irundarrak erakutsi digute... Irún'en beintzat, bizi izan zala, gutxien gutxienez, bere etxeo ontziak iru-milla-pusketan txikitu zituen Oarso'tar atso esku-ixuriren bat...

Ori ondamendia!... Txukun askoak izan ziran errenderiko Oarso'tar etxeoandreak!...

Asi, asi, errenderiarrok, gure amonen amonen amonen, ontzi... osoen billa!...

Irun'dik baiña beti errenderiarra.